

# Euskaraz, bai horixe

## Bideo-lehiaketa

### OINARRIAK

#### HELBURUA

Zumaiarren artean, eta bereziki gazteen artean, euskararen erabilera sustatzea.

#### GAIA

Lehiaketaren gaia honako hau da: “Euskaraz, bai horixe”. Bideoetan, besteak beste, gai hauei buruz hausnar daiteke: zergatik ez dugu euskaraz egiten beti; nola lortu euskara esparru guztietara zabaltzea; nola apurtu aurreiritziak...

#### PARTE-HARTZAILEAK

14 eta 18 urte bitarteko zumaiar gazteak, hau da 2004-2008 artean jaiotakoak.

#### BIDEOEN EZAUGARRIAK

Proposatutako gaiarekin bat etortzeaz gain, honako baldintza hauek bete behar dituzte bideoek:

- Originalak eta aurrez argitaratu gabeak izan behar dute.
- Gutxienez % 80 euskaraz grabatuak izan behar dute.
- Bideoaren hasieran lehiaketaren karatula jarri behar da, bideoaren izenburua bertan txertatuta.
- Bi eta hiru minutu arteko iraupena izatea.
- Youtube-k onartutako formatuetako batean egotea.
- Ekoiztako lan guztiak Creative Commons AITORTUPARTEKATU lizentziarekin zabalduko dira. Horren arabera, egileek baimena ematen dute euren lana edozeinek ikusi, erakutsi edota berrerabiltzeko, betiere egiletza aitortuz eta eratorritako lanak baldintza berdinetan partekatuz. Informazio gehiagorako, ikusi: <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>.
- **LARRAINA Zumaiko Euskara Elkarteak** ez du izango bideoen edukien eta iritzien gaineko ardurarik.

#### BIDALKETA

Bideoa azaroaren 1erako bidali behar da.

- Bideoa [Wetransfer](http://www.wetransfer.com) ([www.wetransfer.com](http://www.wetransfer.com)) bidali behar da, helbide honetara: [zumaia@larraina.eus](mailto:zumaia@larraina.eus). Mezuarekin batera, bideoaren egile(ar)en izena(k) eta kontakturako telefono bat eman beharko da.

- Bideoa adin txikikoek egina bada, edota adin txikikoak agertzen badira irudietan, guraso batek egin beharko du bideoaren bidalketa eta adin txikiko parte-hartzaileen gurasoen baimenak gehitu beharko dira korrean. Baimenaren eredia <https://labur.eus/larraina> helbidean daukazue eskuragarri.

## **EPAIMAHAIA ETA SARIAK**

Hiru sari izango dira, denak GERTU Zumaiako merkatari eta ostalarien elkarteko bonutan.

- 1. Saria: 500 euro bonutan
- 2. Saria: 300 euro bonutan
- 3. Saria: 200 euro bonutan

Epaimahaia hiru lagunek osatuko dute; euskara, arte eta sorkuntza eta komunikazioa esparruetakoak. Baloratuko diren atalak honako hauek izango dira: bideoaren mezua bat etortzea lehiaketaren helburuekin, mezua ondo komunikatzea, bideoaren balio estetikoa eta bideoaren alderdi teknikoa.

Sari-banaketa: azaroaren 5ean izango da, Larraina egunarekin bat, Alondegian.

## **OHAR LEGALAK**

Lehiaketan parte hartzeak adierazten du parte-hartzaileak lehiaketaren oinarriak irakurri eta ulertu dituela. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztien onarpena dakar. Parte-hartzaileak izango dira erantzule bakarrak bideoetan azaltzen diren pertsonengatik irudi-eskubideak direla-eta izan daitekeen edozein erreklamazioaren erantzule bakarrak.

Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoaren arabera, bideoak bidaltzerakoan, parte-hartzaileek baimena ematen diete **Larraina Zumaiako Euskara Elkarteari** emandako datu pertsonalak lehiaketarako beharrezkoak diren izapide eta gestioetan kudeatzeko.

Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diete Larraina Zumaiako Euskara Elkarteari materiala doan eta egoki ikusten den edozein euskarritan hedatzeko, banatzeko, erakusteko, publikoki komunikatzeko, zabaltzeko eta erreproduzitzeko. Horretaz gain, ekoiztako lan guztiak Creative Commons AITORTUPARTEKATU lizentziapean zabalduko dira. Horren arabera, egileek baimena ematen dute euren lana edozeinek ikusi, erakutsi edota berrerabiltzeko, betiere egiletza aitortuz eta eratorritako lanak baldintza berdinetan partekatuz.

**Larraina Zumaiako Euskara Elkarteak** lehiaketa honetako oinarriak edozein momentutan interpretatzeko edo aldatzeko eskubidea du, baita lehiaketa bera bertan behera uzteko edo saria eman gabe lagatzeko ere, betiere tartean neurri hori bidezkotzen duen arrazoiren bat bada. Edozein kasutan, **Larraina Zumaiako Euskara Elkarteak** oinarri hauetan gerta daitekeen edozein aldaketa, eta bere kasuan, lehiaketa osoaren baliogabetzea bide honen bidez komunikatzeko konpromisoa du parte-hartzaile guztiek informazio hori eskura izan dezaten.